



2021EKO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



AUZO A: UGALDETXO

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2020-10-06	19:03	20:28

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Jexux Leonet, Olga Leibar eta Olaia Lasa			
Herritarrak:	Euskaraz: 25		Elebitan: 1	
	Emakumezkoak: 16		Gizonezkoak: 10	
	<30 urte: 1	31-50 urte: 9	51-65 urte: 13	>66 urte: 3

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	Zinegotzien aurkezpena eta bileraren egitura azaldu da.
2020 urtea	2020ko egoera azaldu da.
2021eko aurreikuspena	2021ko aurreikuspena azaldu da. Urkabe baitako etxeak alokairura bideratuta daudela baieztatu zaio herritar bati. Gurutzeko bidegorriaren ibilbideaz galdetu da. Gurutzeko hoteletik, Malkorrerraren azpikaldera, gero xixtiyoko azpitik eta handik Urkabeko bidetik plazaraino. Santuseneko horretan Erriberenera sartzeko lerro jarraia zapaltzen dutela dio herritar batek. Atzo Elizaldeko bizilagunek ere aipatu zuten eta zuzendu beharra dagoela azaltzen zaio.
Auzoa	Ihurrta bidea 1eko bizilagunak arazoak dituzte bizilagun bilerak egiteko eta auzo lokala horretarako erabiltzea ongi etorriko litzaioketela azaltzen du auzotar batek. Auzo lokala auzotarrentzat da eta erabilerak auzotarrak adostuko dituzte, bizilagunen bilera bat egitea izan daiteke erabileretako bat.

Ariztegi etxean hondakinen zintzilikailuak karreteran beste aldean daude eta karretera gurutzatzea arrisku bihurtu da; izan ere, inor ez da geratzen zebra bidean; honez gain, bertan abiadura handian ibiltzen dira. Pasabideko horretan “resalto” batzuk abiadura murrizteko izango litzake eskaera. Bizilagun elbarrituak eta haurrak bizi dira etxe horietan eta beldurrez ibiltzen dira. Beste aukera zintzilikailuak aldatzea litzake. Begiratuko da egoera eta irtenbide egokiena ematen saiatuko da Udala.

Auzoak kotxe askorekin eta abiadura handian izaten jarraitzen du, stop-ak ez dira errespetatzen. Ugaldetxo Oiartzungo sarrera da eta kotxe asko pasatzen direla auzotik dio herritar batek. Lehengo urtean radarren inguruan hitz egin zen, aldundiaren errepidea den momentutik beraiek jarri edota baimendu behar du. Kontsultak egiten ari da Udala, eta nahiz eta isunen aldekoak ez izan, Ugaldetxon jada gainontzeko aukerak jorratu dira.

Bariantea noiz gauzatuko da? Semaforoak eta radarrak ongi daudela dio herritarrek baina, partxeak direla, benetako soluzioa bariantearena da. Udalak azaltzen du bariantea etxe garapenarekin lotuta doala, futbol zelaian doazen etxeekin. Guzti hori Amenabarren eskutan dago. Beramendiren legegaldian etxe kopuru handia jaso zen plan orokorrean, etxe kopurua jaisten saiatu behar dugu. Udalak badaki Amenabar begira dabilela baina ez du inongo berririk aurrera egiteko asmoa duen ala ez. Auzotarraren ustez, udalak Amenabarrekin iritsi behar du tratu batzuetara, baina auzoak behar duen arnas bat da bariantea. Udalak badu inbertsiorako dirua, egon daiteke kontenplatuta hor inbertsioa egitearekin. Zergatik itxaron behar da Amenabarri interesatzen zaion arte? Zergatik ez da inbertsioa burutzen udaletik eta gero hitz egingo da Amenabarrekin? Ugaldetxok ez al du merezi inbertsio bat, itxaron gabe urte mordoxka bat gehiago Amenabarri? Udaletik erantzuten da aukera bat litzakeela, baina aztertu beharreko proiektua litzake, bai legalki egin daiteken eta baita ekonomikoki ere. Udala erabat irekita dago Amenabarrekin negoziatzera. Planeamendu orokorrarekin bi arazo larri daude, batetik Arragua eta bestetik Ugaldetxo. Arraguan mugitzen ari da eta negoziatzotan dabil Udala. Gustatuko litzaioke Udalarri Amenabarrekin ere negoziazio batera iristeko.

Herritar batek galdetzen du Amenabarrek eskubidea duen 200 etxebizitza horiek egiteko eta baietza erantzuten da. Etxe hauen altuera jakin nahi dute

auzotarrek. Ustez 5-6 pisukoak izango direla erantzuten da eta parking-a ere desagertuko litzateke.

Aparkatzeko arazoak izaten dira ordu puntualetan. Badirudi “kedadak” Ugaldetxoko parkinean egiten dituela jendeak, bidegorrira joateko kanpotarrek ere bertan aparkatzen dute, Paradako etxe berriek ez dute aparkalekurik, futbol partiduak,... Beste herritar batek proposatzen du Paradaren atzealdean dagoen zelaidi kotxeentzako eremua sortzea bariantearen proiektua burutzen den bitartean.

Kamioiak aparkatzen dituzte futbol zelaiko espaloian eta ikusgarritasuna kentzen dute. Piboteren bat jarri da baina ez da nahiko, oraindik ere ikusgarritasun falta dago. Honez gain, jendeak lekurik ez dagoenean kotxeak gaizki aparkatzen ditu, espaloian, itzaletan uztearren edozein txokotan,...

Kalea plazan motoak aparkatzen dute, motoak aparkatzeko lekua ibai aldera eramanean da intxixu aurretik eta plazako aterpeetan eta espaloian barrena ibiltzen dira. Plaza horretan haur asko ibiltzen da eta arriskutsu geratzen da.

Parking “residente” aukera eskatzen du auzotar batek. Momentuz kaskoa bakarra dago mugatua. Auzotarrak nahiago du zeozer ordaindu baina ziurtatu aparkalekua izango duela.

Biñeta garestia omen du Oiartzunek, hori entzun du herritar batek. Elizaldekoa luxu bat da, baina gainontzeko lekuetan arazoak daude aparkatzeko. Udalak aipatzen du hori ez dela horrela. Aparkalekuen inguruan; elizalderen kasuan bertan bizi direnentzat lekua sobera da baina kaxkoa izanik eta zerbitzu gune asko izanik leku gehiago behar da. Beste errealitate bat da udaran eta neguan asko aldatzen dela egoera, izan ere, jendeak udaran ez du bere garajea erabiltzen eta neguan bai. Elizalde, Ergoien, Altzibar, Karrika eta Arruguan badaude aparkatzeko lekuak. Iturriotzen orain egingo da aparkalekutxo bat.

Herriak eskaintzen dituen abantailak kanpotarrek aprobetxatzen dituztela uste du auzotar batek.

Futbol zelaiko aparkalekuan egin liteke parking-a gorantz? Garberan dagoen bezala? Ideia gisa botatzen du herritar batek. Udalaren iritziz horrek kotxe gehiago erakartzen du, herrian egin diren aparkaleku guztiak betetzen dira. Baina ikusirik bizilagunen kezka aparkalekuekin azterketa bat egingo dela Udaletik esaten da.

Biziberritze planarekin poligonoak biziberritzearena “arma de doble filo” dela uste du auzotar batek, izan ere, hor arratsaldetan kola ilarak sortzen dira. Udaletik azaltzen da errealitate horren jabe direla.; martxan dagoen kudeaketetako bat autopista liberatzearena da, trafikoa arintze aldera. Arazoa da ataskoaren arrazoi nagusietako bat Lanbarren poligonoko kamioiak direla; horren soluzioa behin baino gehiagotan planteatu da, Lanbarrenetik zuzenean autopistara joateko bidea izatea, baina printzipioz konplikatua da. Udalak autopistarenarekin saiatzen jarraituko du. Orain arte egin ote den zeozer galdetzen dute. Formalki ez da deus egin, orain arte elkarrizketa bidez bakarrik izan da, orain hasi behar du udalak gauzak formalizatzen.

Bide gorriko jardinetan lokatza egiten da bidean. Begiratuko duela dio Udalak. Txatolako bideko zubian baranda puskatu zen eta udaltzainek zinta batzuk jarri zituzten, baina konpondu gabe jarraitzen du. Abisua pasako duela erantzuten du Udalak.

Mamuteko atzealdea nola dagoen jakin nahi du auzotar batek. Zentro komertzialaren eremua da eta istripua gertatu aurretik abisua pasa zen konpontzeko, baina istripuaz geroztik itxitzeko agindua egin zaie. Karga eta deskargarako bakarrik erabiltzen da eremu hori.

Inkisidore baten izenean dagoen kale bat dago Ugaldetxon, Mendibilen “German Ugarte”, izena aldatzea litzake proposamena. Bizilagun honek eskaera egin zuen bere garaian gainerako bizilagun guztiakin adostuta eta berriz ere mahai gainean jartzea gustatuko litzaioke.

Bizilagun batek konfirmatu nahi du hondakinen ordutegia 20.00etatik 22.00etara dela, badirudi jendeak ez duela errespetatzen.

COVID-aren istorioarekin udalak baimendu du terrazako jardunaldia. Hemendik aurrera nola gestionatuko den galdetzen dute. COVID-a iritsi zenean lehenik ostalaritzarentat dirulaguntza lerro bat atera zen eta terrazekin malgutasun handiarekin jokatu da. Aste honetan normalizazio batera goaz eta, beraz, terrazak ere lehenagoko kondiziotara itzuliko dira. Momentu honetan 1:00etan jaso behar da terraza, egoera berri honetan baloratu beharko da ordutegia mantendu edota 00.00etara bueltatu. Honek arazoak ekarriko ditu, orain arte bezala jende pilaketekin eta zaratekin.



2021EKO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



	Matteoko bidegurutzean argi gutxi egoten da eta kotxean datorrenak ez du jendea ikusten. Farola errepedearen alde bakarrean baitago; beraz, edo dagoen farola handiagoa jarri, edota espaloia beste aldea argitzeko beste bat jarri.
--	--

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,39
bilera ongi gidatu da	8,50
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8,18
Auzotar kopurua	8
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	8
Saioa probetxugarria izan al da?	8,44
Egunaren egokitasuna	8,56
Orduaren egokitasuna	8,67
Lekuaren egokitasuna	9,06